



KULTUR ETXEKO BARNE ARAUDIA

Etxalarko Kultur Etxea, jabari eta zerbitzu publikoko udal ondasuna da, kultura bere dimentsio guztietan, bizi asoziatiboa, eta oro har komunitatearen eginkizunetan herritarren parte hartzea bultzatzea xede duena.

1. Kultur Etxea ez da Etxalarko talde bakar baten egoitza izanen.
2. Kultur Etxea erabiltzen duten talde eta pertsonen, Kultur Etxeko instalazioak hala ondasun hirigarri nola higiezinak zaintzeko konpromezua hartuko du.
3. Kultur Etxeko geletan ezin da erre.
4. Ikasturte bakoitzaren hasieran, Kultur Etxea erabiltzen duen talde bakoitzak Kultur Etxeko gelak erabiltzeko jarduera eta ordutegiaren egutegia aurkeztuko du.
5. Kultur etxean ekitaldiren antolatu nahi ezker, eskaera kultur etxeko langileari helarazi behar zaio.
6. Eskaerak onartuko dira, beti ere, burutu beharreko jarduerak Kultur Etxe barruko jardueren funtzionamendu normala ez badute eragozten.
7. Eraikina erabiltzeko lehentasunak egongo dira; jarduera, denbora, kultur xedeak, herriarentzako interesa, etab. Instalazioak dohain erabiliko dira, jarduerak Kultur Etxeko helburuekin bat egiten badute, herriko talde batek antolatu badu eta sarrerarik ez bada kobratzen. Herriko talde batek sarrera kobratzen badu eta aipatutako sarrera talde antolatzailearen gastuak estaltzeko erabiltzen bada ez du inolako alokairu kuota ordainduko. Gainerako kasuetan, jarduera antolatu duen taldeari tasa bat kobratuko zaio alokairu gisa.
8. Erakusgelari dagokionez, talde antolatzailearen batek jardueraren bat antolatzeko material teknikoa, soinua, argiak, apaingarriak, etab. beharko balitu, horiek eskaera egin duen taldeak jarri beharko ditu.
9. Talde batek takilarekin ekitaldiak antolatzeko asmoa baldin badu, horretarako dauden pertsonekin koordinatuko du.
10. Udala ez da publikoak eta jendeak oro har egin ditzakeen gauzen arduraduna izanen. Ardura bakar bakarrik talde antolatzailearena izango da.
11. Eskuko egitarauak, kartelak eta bertzelako propaganda egiteagatik sortutako gastuak jardueren antolatzaileen kontura izango dira.
12. Egile eskubideak, hala daudenean, jarduera bakoitzaren antolatzaileak ordainduko dituzte.
13. Kultur Etxean egindako publizitatea duen jarduera guztiak Etxalarko Udalaren izena emango dute erakunde laguntzaile gisa.
14. Erabilitako gelan suertatutako edozein kalte, jardueraren talde antolatzaileak ordainduko du.

15. Jarduera baten antolatzaileak eszenatokia, aulkiak, pianoak, etab, jarri behar baldin baditu, berau arduratuko da eszenatokia jarri eta kentzeaz. Ekitaldia bukatzen denean lekua aurkitu duen bezala utzi beharko du.
16. Kultur etxeko ordutegia Udalak zehaztuko du kultur etxe4ko langilearekin, langileagoaren prestutasuna eta erabiltzeko dauden eskaeren arabera.
17. Talde edo erakunde batek Kultur etxea itxita dagoenean erabili ahal izateko baimena jasoko balu, kultur etxeko langileak eskaera egin duen talde erabiltzaileari Kultur etxea zabaldu eta ixteko giltzak eta behar diren argibideak emango dizkio eta eskaeraren egilea izanen da arduraduna Kultur etxean gerta daitekeenaz. Giltzak bulegoko ordutegitan jasoko dira kultur etxeko langilearen bulegoan eta lehen bai lehen itzuli beharko dira.

AZKEN XEDAPENAK

- Lehenengoa: Araudi hau osorik edo zatiren batean aldatu ahal izateko beharrezkoa izanen da Kultur Batzordearen ez ohiko bilkura deitzea iragarpenean bertan aldatu edo kendu nahi diren artikulua edo artikulua aipatuko dira. Aldaketa hauek udalak ere onartu beharko ditu.
- Bigarrena: Araudi honetan aurreikusi ez diren kasuak Kultur Batzordeak erabakiko ditu.